



Exp 926/2019

Jakinaren gain jartzen zaitut, nire ardurapeko Idazkaritza honetan badela, izan, Alkatetzak 2019ko martxoaren 1ean emandako 2019-0450 Dekretua, eta hitzez hitz honela diola:

“ALKATEAREN DEKRETUA”

2019ko martxoaren 2an, inauteriak ospatuko dira Sopelan.

Jendaurreko ikuskizun eta Jolas Jarduerei buruzko abenduaren 23ko 10/2015 Legearen 18.3 artikuluak ordutegien gaineko ahalmen jakin bat arautzen du (ikusi EHAA, 2016ko urtarrilaren 7koa, 3. zenbakia; eta EAO, 2016ko urtarrilaren 27koa, 23. zenbakia), eta hitzez hitz honela ezartzen du:

“3.- Jaiegunetan edo bestelako gertakizunetan, udalek inoiz luzatu ahal izango dute establezimenduen ordutegi orokorra, arau bidez aurreikusitako egoeretan eta moduetan.”

Eusko Jaurlaritzaren otsailaren 11ko 14/2014 Dekretuaren bidez, hirugarren aldiz aldatzen da jendaurreko ikuskizunen eta jolas jardueren ordutegiak eta jarduera horiei buruzko beste alderdi batzuk Euskal Autonomia Erkidegoaren eremuan ezartzen dituen Dekretua. Eta, besteak beste, indargabetu egiten du ordutegi berezien urteko egutegia. Dekretuak honako hau ezartzen du:

“1.- Udal-agintarieki gehienez ere bi orduz luzatu ahal izango dute ordutegia udalak berak edo EAEko organo eskumendunak jai gisa edo interes turistikodun gisa

Pongo en su conocimiento que en esta Secretaría de mi cargo, existe el Decreto de Alcaldía nº 2019-0450, de fecha 1 de marzo de 2019, que copiado literalmente es del siguiente tenor:

“DECRETO DE ALCALDÍA”

Visto que con fecha 2 de marzo de 2019 está prevista la celebración de los carnavales en el municipio de Sopela.

De conformidad con lo dispuesto en el artículo 18.3 de la Ley 10/2015, de 23 de diciembre, de espectáculos públicos y actividades recreativas publicada en BOPV núm. 3 de 07 de Enero de 2016 y BOE núm. 23 de 27 de Enero de 2016 que a tenor literal establece:

“3.- Los ayuntamientos podrán establecer ampliaciones al horario general de los establecimientos con motivo de fiestas y otros eventos, en los supuestos y formas que reglamentariamente se prevean.”

Visto que el Decreto del Gobierno Vasco nº14/2014, de 11 de febrero, de tercera modificación del Decreto por el que se establecen los horarios de los espectáculos públicos y actividades recreativas y otros aspectos relativos a estas actividades en el ámbito de la Comunidad Autónoma del País Vasco, deroga el calendario anual de horarios especiales y establece lo siguiente:

“1.- Las autoridades municipales podrán ampliar con un máximo de dos horas el horario previsto con motivo de acontecimientos o eventos calificados como festivos o de interés turístico por el propio ayuntamiento o por el órgano



kalifikatu dituzten gertaerak direla-eta. Gertaera horiek, besteak beste, honako hauek izan daitezke: ospakizun publikoak, auzoko jaiak, gertaera sozialak, azokak, sarketak, erakusketak edo antzekoak. Nolanahi ere, urtean, gehienez ere hamabost egunetan luzatu ahal izango da ordutegia.

2.– Halaber, udalek gehienez ere bi orduz luzatu ahal izango dute aurreikusitako ixteko ordua, jarraian adierazten diren kasu hauetan:

a) Zaindariaren egunak, alegia, udal bakoitzak bere udal-mugartean ofizialki ezarri dituenak.

b) Aste Santuan, ostegunetik astelehenera; Inauterietan, ostegunetik asteartera; eta gabonetan, abenduaren 15etik urtarrilaren 6ra.

3.– Aurreko paragrafoetan ezarritakoa gorabehera, udalek ordutegi orokorra gehienez ere bi orduz luzatu ahal izango dute (urtean, gehienez ere hamabost egunetan), aurreikusi ezin daitezkeen ezohiko inguruabarrak direla-eta, betiere, inguruabar horiek lehenengo paragrafoan aurreikusitako gertaeren antzekoekin zerikusia badute.

4.– Auzoetako jaien kasuan edo udal-mugartearren barruko lurralte-eremu batera mugatutako beste gertaera batzuen kasuan, udalak erabaki ahal izango du ordutegi berezi hori udalerriaren eremu horretarako bakarrik izango dela.

5.– Artikulu honetan adierazten den ordutegi-erregimenaren luzapena erabakitzeko, udalek aukera izango dute

competente de la Comunidad Autónoma, tales como celebraciones públicas, fiestas de barrio, acontecimientos de carácter social, feria, certámenes, exposiciones u otros análogos, con el límite máximo de quince días por año natural.

2.– Asimismo, los ayuntamientos podrán ampliar con un máximo de dos horas el horario de cierre previsto con ocasión de los siguientes eventos:

a) Las fiestas patronales, entendiendo por tales las establecidas oficialmente por cada Ayuntamiento en su término municipal.

b) De jueves al lunes de Semana Santa; de jueves a martes en Carnavales, y desde el 15 de diciembre al 6 de enero en Navidades.

3.– Sin perjuicio de lo previsto en los párrafos anteriores, los ayuntamientos podrán, asimismo, ampliar el horario general con un máximo de dos horas, con el límite máximo de quince días por año natural, en función de circunstancias sobrevenidas de carácter excepcional y no habitual referidos a eventos de similar naturaleza a los contemplados en el párrafo primero.

4.– En el caso de fiestas de barrios u otros acontecimientos circunscritos a un ámbito territorial definido dentro del término municipal, el ayuntamiento podrá determinar que el horario especial se refiera a ese concreto ámbito territorial del municipio.

5.– Para la determinación de la ampliación del régimen, a que se refiere el presente artículo, los ayuntamientos podrán considerar la posibilidad de exigir



lokalei neurri zuzentzaile bereziak eskatzeko; esate baterako, gehiegizko zarata- edo bibrazio-maila kontrolatu, arindu edo ezerezean uzteko gailuak instalatzeko obligazioa.

6.– Udalak gai honetan eskumena duen Eusko Jaurlaritzako Zuzendaritzari jakinarazi behar dio aurreko paragrafoen arabera hartutako ordutegi-erregimen berezia, ordutegi hori indarrean jarri baino 72 ordu lehenago, eta zehaztu egin behar du ordutegi hori zein eremutan eta zein egunetan aplikatuko den, baita ordutegi horrek, hala badagokio, ekar ditzakeen mugak ere.

Halaber, udalek argitara emango dute baimendutako ordutegi-erregimen berezi hori, herritarrek eta eragindako establezimenduen titularrek horren berri izan dezaten. Nolanahi ere, beti adierazi beharko da ordutegi-erregimen horrek zein lurralte-eremuri eta zein eguni eragiten dion.

7.– Udal-agintariek lokalen kankoaldean terrazak edo antzekoak jartzeko lizenzia bereziak eman dituzten kasuetan, udalak berak instalazio horietarako ezarri dituen ixteko ordutegiak bete beharko dira, betiere dekretu honetan ezarritako mugen barruan eta hirugarrenetik eragozpenik sortu gabe.”

Horiek horrela, TAOALen xedatutakoaren arabera, honako hau **EBAZTEN DUT:**

LEHENENGOA.- Luza bedi **bi** **orduz** ostalaritza-establezimenduak ixteko ordutegia, 2019ko martxoaren 2rako.

la adopción de medidas correctoras singulares a los locales, tales como la obligación de instalar dispositivos para controlar, atenuar o eliminar el nivel de ruido o vibración excesivos.

6.– Con una antelación de 72 horas a la fecha de efectos, el ayuntamiento deberá comunicar a la Dirección del Gobierno Vasco competente en esta materia el régimen horario especial adoptado conforme a los párrafos anteriores, determinando el ámbito y las fechas en las que el mismo sea aplicable, y las limitaciones que, en su caso, dicho horario conlleve.

Asimismo, por parte de los ayuntamientos se dará publicidad al régimen horario especial autorizado, para su conocimiento por los ciudadanos y titulares de establecimientos afectados, debiendo informarse en todo caso del ámbito territorial y las fechas afectadas por dicho régimen horario.

7.– En aquellos casos en que las autoridades municipales hayan otorgado licencias específicas para la disposición de terrazas o similares exteriores a los locales, se estará al horario de cierre que haya establecido para dichas instalaciones el propio Ayuntamiento, dentro de los límites establecidos en el presente Decreto y siempre que no produzcan molestia a terceros.”

En base a lo señalado y en virtud de lo dispuesto en la LRBRL, **RESUELVO:**

PRIMERO.- Ampliar el horario de cierre de los establecimientos de hostelería en **dos horas** para el próximo día 2 de marzo de 2019.



Sopelako Udala
Ayuntamiento
de Sopela

BIGARRENA.- Lokalek itxita eduki beharko dituzte ate bikoitzek. Ezin dira erabili kasuan kasuko lizenziak baimentzen ez dituen musika-ekipoak. Debekatuta dago musika-ekipoak edo bozgorailuak lokaletik kanpora ateratzea.

HIRUGARRENA.- Eman bekie ebaZen honen berri Eusko Jaurlaritzari, ostalaritza eta merkataritza-elkarteei eta gainerako interesdunei.”

SEGUNDO.- Los locales deberán tener las dobles puertas cerradas. No se permiten equipos musicales distintos a los autorizados por su licencia. Queda prohibido sacar equipos musicales o altavoces fuera del local.

TERCERO.- Dese traslado de la presente al Gobierno Vasco y a las asociaciones de hostelería, comerciantes y demás interesados.”

**Idazkaria
El Secretario en funciones**

(ELEKTRONIKOKI SINATUA / FIRMADO ELECTRÓNICAMENTE)